

BIGARREN SEKTOREA GALDERAK 1

1.- Zein da Espainiaren egoera?

- A. Bere energia-baliabideekin erabat hornitzen da.
- B. Energia berriztagarriak inportatu behar ditu.
- C. Erregai fosil gehienak inportatzen ditu.

2.- Zein autonomia-erkidego da nagusi Espainiako meatzaritzaren ekoizpenean?

- A. Andaluzia
- B. Katalunia
- C. Asturias

3.- Zeren ondorioz batu zen Espainian 2008ko krisia bertako krisi batekin?

- A. Higiezinen burbuilaren ondorioz.
- B. Krisi politiko baten ondorioz.
- C. COVID-19aren pandemiaren ondorioz.

4.- Zein dira bi autonomia-erkidego nagusiak industria-negozioaren zifraren arabera?

- A. Katalunia eta Euskadi.
- B. Katalunia eta Andaluzia.
- C. Katalunia eta Madril.

5.- Zenbatekoa da energia berriztagarrien kontsumoa Espainian?

- A. Kontsumitutako energiaren % 15,5
- B. Kontsumitutako energiaren % 25
- C. Kontsumitutako energiaren erdia.

6.- Zer sektoreri eragin zion 2008ko krisiak bereziki?

- A. Lehen sektoreari.
- B. Bigarren sektoreari.
- C. Hirugarren sektoreari.

7.- Zein da meatzaritzaren egoera Espainian?

- A. Gorantz ari da.
- B. Atzera egiten ari da.
- C. BPG-aren zati handi bat ekartzen du.

8.- Zein dira Espainiako industria-adar garrantzitsuenak?

- A. Produktu metalikoak, eta industria kimikoa eta farmazeutikoa.
- B. Elikagaien, edarien eta tabakoaren sektorea.
- C. Ehungintzaren eta oinetakoen sektorea.

9.- Zein da Espainiako industria-politikaren helburu nagusia?

- A. Enplegua sortzea.
- B. Industria eta meatzaritza birmoldatzea.
- C. Sektorearen produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzea, ingurumen-inpaktua ahalik eta gehien mugatuz.

10.- Zein da 2020ko Espainiako industria-politika berriaren oinarria?

- A. Industrien eraldaketa digitala bultzatzea.
- B. Trantsizio ekologikoa bultzatzea.
- C. Aurreko biak zuzenak dira.